


MARZELINO SOROA LASA

BARATZAN



AUSPOA LIBURUTEGIA

58-90
10436

B A R A T Z A N

AUSPOA LIBURUTEGIA

31

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2-Tolosa**
Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**
Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearra:

Urte betekoa: 200 pezeta Atzerrian: 275 pezeta

Ongilleak: 350 " Ale bakarra: 25 "

MARZELINO SOROA LASA

B A R A T Z A N

AUSPOA LIBURUTEGIA

1963

Lenengo argitaraldia: "Euskal-Erría",
XIV-XV (1886).
Bigarren argitaraldia: Auspoa, 31 (1963).

Depósito Legal S. S. 1214/63
Número Registro 3243/63

ARKIBIDEA

ITZAURREA	9
LENBIZIKO JOLASA	15
BIGARREN JOLASA	19
IRUGARREN JOLASA	27
LAUGARREN JOLASA	33
BOSTGARREN JOLASA	41
SEIGARREN JOLASA	51
ZAZPIGARREN JOLASA	59
ZORTZIGARREN JOLASA	67
BEDERATZIGARREN JOLASA	77
AMARGARREN JOLASA	87
AMAIKAGARREN JOLASA	93
AMABIGARREN JOLASA	99
AZKEN-ITZA	107

ITZAURREA

BARATZAN deritzan lan au, "Euskal-Erria" aldizkarian argitaratu zan, XIV ta XV-garrengo aleetan, 1886-garren urtean. Bañan ez aurretik eta ez atzetik, ez du Soroak zergatik eta nolatan idatzi zuan esaten.

Kaleko jaun baten eta baserritar baten arteko berriketa edo jarduna da. Alkar-izketan moldatutako liburuak, gaur egunean iñork antolatzen ez baditu ere, ezagunak izandu ziran garai batez gure artean ere.

Olakoak ditugu: Agustin Iturriaga-ren "Jolasak", Agustin Jauregui-ren "Albiste on bat urteoro berritzen dana", M. Elissamburu-ren "Lehenko eskualdunak zer ziren", Juan Jose Moguel-en "Baserritar Nekazale-entzako Eskolia", ta Soroa-ren "Baratzan".

Soroa-ren ontan, Donostiko jaun bat Batistaren baratzara pasiatzen joaten da. Jauna ta baseritarra berriketan jarduten dira, noizean bein Batistaren etxeakoak eta auzokoak ere izketan azaltzen edo aitatzen diralarik: Ana Mari Batistaren emaztea, Mikolax, Joxpiñaxi, Anttoniyo, Manueltxo, Luisatxo, Ana Mari, Iñaxi, Joxe Erramun,...

Alkar-izketa, udaberrian asten da, karnaba aita-amak beren umeai jatena ematen ari zaizkielarik; ta udazkenean bukatzen da, trikuak sagar-pilletan txilipurdika ibilli, bizkarra sagarrez bete ta sasi-zuloetan izkutatzen diran garayan.

Bitarte ontan baratza, mendi ta kanpo guzian gertatzen diran aldaketa ta gorabera miragarri guzien berri ematen digu: goizeko intzak, arrosak, lugartzak, turmoya, lurmaniatzea, kukuba, txantxangorria, marrubiak, usoen gurgurrakua ta burrioyen pikardiak, etxeko beiaren umea kendu diotelako marruak, tipulak, azak, bareak, gariak, pintxanak, belarra ebakitzeko ta arbolak botatzeko ill bera ala ill berria komeni dan, Normandiko ta Donostiko sagardoen kontuak... ta abar ta abar.

Apika ez da gure literaturan izango izadiaren bizitzaren berri Soroak baño obeto ematen digun idazlerik.

Karmelo Etxegarai jaunak ortan alde aundia arkitzen zuan Bilintx eta Elissamburu artean: alegia, Bilintxek gutxi ezagutzen zituala izadiaren bizitza ta kanpoaren gorra-berak, ta Elissamburuk berriz, asko, ura kalean, Donostin, eta au, berriz, erri txiki batean, Sara-n, jaio ta bizi izanak ziralako.

Bañan arrazoi orrek ez du Soroarentzat ezer balio; Soroa ere Donostiarra izanagatik, izadiaren bizitzari gutxik bezelako jakinduri ta maitasuna agertzen dizka.

Bere maitetasun orren bidez, bere lan au poesiaz jantzi zuan; eta bere jakinduriaren bidez, euskal iztegia aberastu dezaketen itz jator ez-ezagun asko ematen dizkigu. Or dau-de, adibidez, irugarren jolasean aitatzen dituan sagar-klase oiek danak.

Komerietan oi duan antzera, emen ere oso alkar-izketa jator ta bizia erabiltzen du. Ortara asko laguntzen dio, asieratik bukaeraño darabilkin euskal umore jatorrak. Umore onek alako gazi-puntta bat ematen

dio liburu guziari. Izan ere, umorerik gabe-ko berriketarik egiten bai al dakite euskaldunak, euskaldun jatorrak badira beintzat? Beraz, emen ere olaxe bear zuan, eta egiaz olaxe egin du Soroak.

Aldiz-aldizka, nekazaritzari edo bizitzari dagokion esaera zar bat edo beste ere bada-
kar. Oyetako geyentxuenak aztu xamarrak daude gaur gure artean: "Madalenaz bero, agatara gero"; "legatza Mayatzian txanponian"; "etxia ta obia munduban guztia": "artuak ereiteko San Markos astia, atzia baño aurria obia"; "San Jorji, artuak eregiteko goizegi; San Markos, ereiñak balegoz"; "aizia buruban ta ibilli munduban"; "mundu onetan bizitzeko, arakiñarekin gosaldtu, ixkribabakin bazkaldtu ta mandazayekin afaldtu".

Ipuirik ere badago. Ain zuzen ere, irakurleak ikusiko duan bezela, paperean Soroak estrañako aldiz jarriak izango dira gaur ere sarri-askotan erriak kontatzen ditun zenbait kontu zar.

Euskera, Gipuzkoako beterrian egiten dan

euskera da; edo zeatzago esateko, garai artan Donostiko kalean egiten zan euskera, bere Donostiarkeri guziekin. Gaur ez du iñork olakorik paperean ezartzen, bañan ez litza-ke ondo, egilleak jarrita ola dagonik, guk orain pittin bat bada ere aldatzea.

Ain zuzen, Soroa-ren baratza ori ere, ez dago Donostitik urruti; ez dira oiek Goie-rriko nekazarien kontuak.

Soroa-ren euskal idaz-lanak, iru motakoak izandu ziran: komeriak (ain zuzen ere, be-rak asiera eman zion gure teatroari), itz-neurtuak (epigrama batez ere, garai artan modan zegoana), eta irugarrena, illunpeta-tik atera-ta liburuan antolaturik, gaur argi-tara azaltzen degun alkar-izketa au.

LENBIZIKO JOLASA

—Arratsalde on.

—Jaungoikoak arratsalde on diyola.

—Giro dago.

—Bai, jauna, bai.

—¿Ari gera?

—Ari biarko zerbait aterako bada. Gu bezelakuak badaki...

—¿Eta bestiak bezelakuak lotan egoten al dira?

—¡A jauna! Beoen kontuba jakiña da: ez da guria bezelakua.

—¿Ez, e? ¿Zer txori daude kayol'ortan?

—Karnabak beren kabiyeekin. Ara, sagarraren adarraren makillaren punttaren punttan ama, eta umiak ojuka.

—¡Orixen poliki!

—Ama eta aita orain datoz jatena ematera.

—¿Eta orla oitzen al dira?

—Bai; jatena zuzen ekartzen diote ume diran bitartean, bañan amabost edo ogei egun pasa ezkeru, eta bere gisa izateko tamañan jartzen diranian, ill egiten dituzte.

—¿Ill?

—Bai, jauna. Ikusten dituztenian kayolatik eziñ aterarik, eta ezaguturik besteren mende gelditzen dirala, ez ayen zorigaiztoa luzatziatik, ekartzen diote mokuan learra...

—¿Zer da learra?

—Arri koxkor txikiya, jatenen ordezen ematen diyotena itorik umiak.

—¡Arrania! Leziyo polita erakutsi nazu.

—¡A jauna! Guk beñere ez degu eskolik izan ta ¿zer nai du bada jakitia? Ikusten deguna.

—Kabi polita egiten du karnabak.

—Bai, jauna; txikiya eta udare-arbolian. Kabirik aundiyena txori txikiyenak egiten du.

—¿Zeñek?

—Txepetxak, eta jartzen ditu amabi edo amalau arrautz. Gañera kabi guztiya tapatzen du, eta bakarrik uzten ditu bi txulo txiki alde banatara, batetik ez bada bestetik iges egiteko.

—Azkarra da. ¿Ta oraiñ kantari asi dan ori ez da kukuba?

—Kukuba, jauna. Kukubak arrautz bat bakarrik egiten du, eta ura besteren kabiyan, txantxangorriyenian. Alperkeriz ez du kabirik egiten. Txantxangorriyak ume asko izaten ditu, eta kukubak ikusten badu bere umia gaizki datorrela, iltzen ditu guztiyak.

—¿Bai?

—Bai, jauna.

—¿Eta alperkeriz ez du arrautz bat besterik egiten?

—Izan liteke ori ere.

—Ara, aldi artan beste txori bat kantari.

—Bai. Txori orrek kantatu ezkeru, iru egun barru eudiya egiten du beti.

—Egunero onera etorriko naiz gauza berriyak ikastera.

—Etorri bedi nai dubenian, errebero pika bat edo marrubi batzubek artu bidez.

—Bigar arte bada.

—Jainkoak nai badu. Bijua ondotxo.

BIGARREN JOLASA

—¿Iñor etorri da, Iñaxi?

—Emen etorri da kaballero euskeraz dakiyen ura.

—¡Euskeraz dakiyena! ¡Euskeraz dakiyena!

—Bai baa.

—¿Ta zer uste dezu zuk, ez dala kaballerorik euskeraz dakiyenik?

—Bai bafian ez diruri. Aiz gutxi azaltzen dira emen... Ta neri gustatzen zait.

—¿Kaballerua?

—Euskeraz jakitia.

—¿Ta nun gelditu da?

—Etxekoandriak atera diyo erreberua ta artzen dago atariyan.

—Ondo egin du. Etxekua da ori, bañan nola denbora luzian ez dan etorri ez dezu ezagutzen.

—Ez bada.

—Tira, bitartian marrubi batzubek bildu zayozkitzu.

—Banua; pozik euskeraz dakiyenian, bestela erdaldunekin nastutzen da bat ezin itzik aiazirik. Emen da bera.

—Bildu bada, bildu, ta pentxamentu ta beste lore batzubek ere bai.

—Egun on, Joxe Batista.

—Jaungoikuak egun on digula. Goiz dabil, goiz.

—Ez naiz bada ni txit goiztarra.

—¿Zer garaitan jeikitzen da bestietan?

—Amarrak aldian.

—¡Mariya Santisima! ¡Ori bizi moduba!
Gizenduko da berriz e orrela.

—Goiz jeikita're ¿zer egingo du batek?
Denbora ezin botarik ibilli.

—¿Denbora ezin botarik? Iru t'erditako egun-sentiya da ta oyak ustutzen ditugu, bafian etzaigu guri orlakorik gertatzen.

—Sasoi ontan zerbait goizago jeiki liteke bai.

—¿Etxian izandu da?

—Bai baa, ta Ana Marik eman dit errebero ederra.

—Protxu on diyola.

—Eskerrikasko.

—Badakit guk eziñ eman gendezakela gauza aundirik.

—Ez. Zernai badezute ta beti aitzaki azpiyan bizi zerate.

—¡A jauna! Guk urteko pitarra izan ezkerro, eta esne ta tratu pixka bat plazarako, ez gera aserre.

—Ez, ez; ala diruri gauzak. Gogotik ari zera beñepiñ goizetikan.

—Ari biarko. Gure lana, jakiña da, goizeko intzekin egin biar da, bestela eguzki-

yak indarra artu ezkeru, ez dago konturik nekazariyentzat.

—¿San Isidro're nekazariya omen zan?

—Bai, jauna: bañan arrek egiten omen zuben txoriyentzat ere, eta guk geonentzat diña eziñ bildu.

—Befiere asetzen etzerate ta. Tira, ¿denbora ederra ez dago?

—¡Denbora... denbora!... Txarraguak izaten dira bai, bañan turmoi makurra dago, jauna.

—Jaungoikuari kontu aundiyak eman biar dizkatzute zuben.

—¿Bai?

—Bai; zergatik zubenentzat ez da gauza zuzenik izaten. Eudiya bada, legortia biar dala; eguzkiya ateratzen bada, bazter guziyak erre biar ditubela; berriz eudiya asten bada, eragiñ guziyak usteltzen dirala, eta orrela matrakez betiak zaudezte beti.

—¡Ja, ja, ja! Ez dago gaizki somatuba. Guk egiñ bañan erraxago esaten dituzte gauz oyek, bai. Beok oitubak daude guziya egiña ikusten ta... Asiko balirake emen.

eta gaur jarriyak bigar desegiñak ikusi, esango luteke orduban beste zerbait.

—¿Zer ari zera oraiñ?

—Intza ederra dago ta, kuadru au maniatzen illar pixka bat billtzen ote degun. Ara, lenbiziko kuadrua ondatu zigun Lázarro-eguneko kazkarabarrak arriya añako alia-kiñ, ta geroztik izandu diran eudi, aize ta jelatiak, galdu dizkigu babak ta udariak.

—Emen ikusten ditut bada pepita udaloriak.

—San Juan udariak dira jauna. Beida beza nola beztubak gelditu diran arri kolpiekiñ.

—Ala daude bai.

—Ara azak ere.

—Zulatubak, balaz josiyak dirudite.

—Ta eskerrak, aurrai bezela kontu arturik, kristalezko estalkiko azitegiyan nekazkiyen berenjenak enitubela bi egunez lenago aldatu piperrak bezela; aldatzen baditut, galduba naiz.

—¿Piperrak galduko ziran?

—Piper aldatubak, bai; bañan nola uga-

ri nituben, beste ainbeste baño geiago dakat oraindik aldatzeko.

—Ona marrubiyak.

—Zer dakazu emen, emakumia?

—Emazia ta alabatxuen konpañiyan pro-gatzeko...

—Batista, utzi zayezu txorakeri oyeri.

—¡Alajaña! ¿Euskeraz jakin ta ez ditu eraman biar?

—Lore abek ere artu.

—Bañan plazan batek eta bestek egingo duten dirubekin...

—Ixo, ixo. Gu beoen etxera juten gera-nian, ez degu kezkek izaten zernai artzeko.

—Bai, ta ara're beñere esku utsik etzera-te juten.

—Ordañak artzen ditugu ederki.

—Bai, bai. ¡Gauza aundiyak!

—Beoekiñ gu zorretan gelditzen gera beti.

—Abek etxera eramaten baditut, erriyetan emango naute.

—¡Ixillik bego!

—Ez naiz geiago etorriko.

—¡Ori egin biar luke! Badaki're Antto-

nio beorren aita zanaren besoetakua dala ta...

—Mutill ederra dago.

—Ez da makal makala ez.

—Eskerrik asko bada ta naizuten arte.

—Eskumuñak etxian eta maizago etorri. ¿Ta emaztia ta alaba ta, zertako ez ditu ekartzen?

—Emakumiak etxetik ateratzeko jazten lau ordu biar dituzte eta gaberdiyan jaiki biarko genduke orren goiz etortzeko.

—Bai, erri barrenian ez dira emen bezelako kontubak.

—Ez; iigoalekua da emengo lasaitasuna! Emen gorontza eta gona motz gorri batekiñ jantziyak daude, ta an, trapubak trapuben gañian, burutik asi ta ofietaraño aurre-alde ta atze-aldiak ez dituzte bearik, ala illia nola...

—¿Zer egingo da bada! Nola diran oiturak, artara jarriyak.

—Geruago ta txorakeri geiago. Ariyo bada, urren arte.

—Eskumuña, eskumuñak, ta nai duten arte.

IRUGARREN JOLASA

—Ara, ara, ¿nor agertzen da emen?

—Neu, neu, kost'aldian esaten duten bezela.

—¿Bizi da, bizi?

—Bai nai beñepiñ. ¿Eta zubek?

—Osasuna degu, osasuna degu. ¿Nolatan egon da orrenbeste egun etorri gabe?

—iZer naizu! Goizero nabill maindiriak eziñ botarik gorputzetik. Beti lenbizitik asmo onak artzen ditut eta gero poto egiten det. Beste ainbeste gertatzen zait udaran bañubekiñ. Urtero ogei ta bat edo ogei ta

amaika bañu artzeko asmuak izaten ditut; badakizu pariak ez dutela izan biar on egiteko...

—Ala diote, jauna.

—Bai, naiz iduripena bat izan; bada, asmu artzen detan egunetik lenbiziko bañuba artzerako, juten zait gutxiyenez illabete.

—¿Ta nola orla?

—Nola lenbiziko bañuba izaten dan gorputz-ikarik aundiyena ematen dubena, eziñ asmaturik nola bigarrenetik asi.

—¡Orreatik ez da ori errez izango!

—Ta azkenerako gelditzen naiz iru edo laurekin. ¿Zer da gurgurraku ori?

—Uxuak, jauna. Oyek ere aparejutxo batzuben daude; egundañoko gaitza egiten dute janik letxu-landare guziya. Debekata da irukitzia, eta ez balitz auzokuekin gaizki jartziagatik, salatuko nituke biar dan lekuban.

—Bai, lan txarra da besteren kaltian irukitzia.

—Ona emen beste enrea-makilla.

—¿Zer da ori?

—Pintxana da, jauna. Txori orrek ondazten ditu bazter guztiyak. Aza-landare, azalore, erresauak, denak. Uste du guztiya jateko ona dubela, eta mokuekiñ atera ta bota egiten ditu.

—¿Ta burrioyak?

—¿Burrioyak? Oyekiñ ez dago gauza zuzenik; pikardi aundiyak egiten dituzte, jauna, garitan ta artotan. Len erri guztiyetan bizi-lagun bakoitzak, urtian bi biar zituben arrapatu ta alkatiari eraman.

—¿Zubek ez dezute artorik egiten?

—Ez, jauna: artua egiten dubenak artua jaten du, bañan tratuba dubenak ogiya ekartzten du.

—¿Ta sagarra nola dijua?

—Nola dator esan beza. Bada, geyena loratu zan kazkarabarra bañan geruago, ta itxura polita dakar. Ezkutuko loriekin, badaki, jantzi ona dauka, jauna.

—¿Zer protxuba jantzi onaekiñ poltzilluban dirurik ezpada!

—Ara ba, berrogei ta amarri galdetzen badiyo, berrogei ta amarrak bakoitzak bere gisa esango diyo.

—¿Zer sagarrekiñ egiten da sagardorik onena?

—¡Sagardua! isagardua! Nastuban egiten da; nola sagar-klase asko dan...

—¿Zer klase dira bada?

—¡Zer klase! izer klase...! ¿Ta kontatzen errez al da? Badu zamora-sagarra, kamuesa, aizpuruba, parada, txalaka (au gaziya da), Andoain-sagarra, panpandoja (ona, sagardo gozua egiteko), aritza (txar antzekua), urtebiya, gezamiña, giel txorrotxa edo mutur luzia (oso ederra da jateko bafian du azal lodiya), udare-sagarra, errege-sagarra, elgieta, libra-sagarra (aundiya, deitzen diote're mandaburua), azirik gabia, ta orla beste asko.

—¡Arrayia! Uste nuben etzendubela bukatzen. Nik baño geiago dakizu.

—¡Bai! Beok beste eskola dute ta gauza aundiyaguetan sayatzen dira.

—¿Zer naizu gauza aundiyagorik lur-kontubak baño? Ori da biarrena, eta gu bizi gera nola ta nundik jaten degun jakiñ gabe. Lurrak ematen ez badu, ez da ezer mundu ontan.

—Ori ala da bai. Bañan beok geiago baliyatzen dira beren izkribu edo itz batzubekiñ, gu gure lan guztiyekiñ baño.

—Alare zubek biarrago zeazte.

—Gu beti batian, jauna.

—¿Nork daki? Nekazariyetatik ere ateratzen dira gai onak beste gauzetaako. Mundu onek gora-bera asko izaten ditu.

—Bai, mundu au luzia ta laburra da.

—Nola dijoakiyon bati.

—Ori, ori.

—Eta munduban guztitatiek izan biar, mendiyak eta lur berdiñak bezela, ala aberats nola eskas-jendiak, eziñ esanik zeñ diran zorion geiagokuak. Eta mendiko egurrekiñ ere gertatzen da, egur batzubekiñ santubak egiten dirala, eta bestiekiñ ikatza.

—Ori ere ala da.

—Eta orreatik askotan gutxiyena iduritzen dana bizi da obetoago. Ara bein base-rriko bi mutill koxkorri aitu niyotena: “I errege baintz ¿ze jango uke?” “¿Nik? Nai-kua talo t’esne. ¿Eta ik?” “Ik onenak esanta, ¿nik ze esango diat?”

—¡Ja, ja, ja! Ayek ere etzuten bada gauza aundirik eskatzen.

—Ez, ez. ¿Ta zer egin zuben Joxe Erramonek?

—Ameriketara jun zan.

—¿Jun zan beaz?

—Bai; lagunak arrotu zuten ta...

—Jungo etzala ta...

—Bai; beti ezetz ta ezetz, ta azkenian bayetz.

—Eudi tantuak asten ditu.

—Bai, jauna; ez dakar malezi aundirik, baña obeko degu barrena sartu.

—Bai, bai, guazen.

LAUGARREN JOLASA

—Egun on, Ana Mari.

—Egun on Jainkuak digula. ¿Zer dabill orren berandu?

—Pasai aldetik nator.

—¿Beru onekiñ?

—Ez da txarra noizik beñ astiñ-aldi bat gorputzari ematia izerdi-azirik, ia aragiyak pixka bat jeixten ote dian.

—Bai, jauna; bañan ez beiyela emen aizetan egon.

—¿Aizerik bai al dabill bada?

—Beti're... Alkandora emango diyot aldatzeko.

—Eskerrik asko: ez da gauza orrenbeste-rañokua.

—Batistaren alkandorak ¿zakartxuak izango beorrentzat?

—Biar banuke elitzairake ajolik. ¿Tanun dabill Batista?

—Entierruan, jauna. ¿Ez al daki?

—¿Zer?

—Il zaigula...

—¿Zein?

—Auzoko gizona.

—¿Il da beaz?

—Ill... ill... ill ez bizi. Badaki... mundu ontan ordu jakiñik ez degula ta... ez dago, ez dago...

—¿Zer egingo da bada! Jaungoikuak berekiñ dezala.

—Ala dezala gizarajua.

—¿Zer ari zifian?

—Illar aundiyenak bildu ditugu ta emen

gobara zabaltzen, jauna,... Joxpiñaxi anillatzen, beyak ere kanpuan ditugu lanianta...

—Aiziak bota ditu emen pusken erdiyak.

—Legorrak daude oyek, jauna. Gero noizik bein eltziari begiratzera egiten det jira, egosi ote dan... ta orla.

—Emen degu Batista.

—Jaungoikuak egun on digula.

—iGizona! iOri da apaintzia! iZe majo!

—iMajo! majo... iNoizik bein jantzi biarguk ere ditugun galak!

—Txaketa berriya ta...

—Txaketa... ez da orren berriya, bañan ez da zarra're. Geyenaz ere... izenbat urte izango ote ditu bada? Sei... zazpi... bederatzia... amaika... ori geyenaz.

—Ez da asko. Geiago lirake amabi.

—Galtzak zerbait geixiago dituzte bai, zergatik gu ezkondu giñala bada... ogeien bat urte, eta Ana Mari lenbizi ezagutu nuben urtian egiñak ziran, ta ori zan sei urteen batzubek lentxiago...

—Ez da asko. Ogei ta sei urte. Ez dira zartu zu aña. Itxura ona dakate.

—¿Guk noizik beñ besterik ibiltzen al ditugu bada?

—¿Bañan sisak jaten ez dizkizute?

—Sisak aberatsen erropak jaten dituzte; guriak txartxuak dira ayentzat ere.

—¿Ta kapa?

—Kapak... badu bere denboratxua, jauna. Aitona zanena zan... ta arrek aitarena omen zuben ta...

—Bai. Moisesen denborakua, tira. Orren majo zaudezen kasuan tori zigarrotxo bat.

—¡Jesus! ¡Galanta da beñepiñ ori! Badaki, jauna, nik pipa besterik erretzen ez detala.

—Ar zazu ta erre zazu.

—Eskerrik asko: txikitu ta pipan erreko det.

—Nai dezun bezela. ¿Entierrotik zatoz beaz?

—Bai, jauna. Luze baño seguru auzoko gizona jun da. ¡Ondo falta aundiya egiten zuben bada! Aza-osto oyek ere ez lirake

orla egongo, bera begira balego. Bañan Jaungoikuak daki zer egiten duben ta...

—Egiya.

—Etxia ta obia munduban guztia.

—Ana Marien koñataren erriko gizonak bezela eskatu biar ziyon Jaungoikoari.

—¿Nola eskatu ziyon bada?

—Miñez azkenekuetan zeguala, agindu zizkaten Elizakuak. Artu zituben, eta abadeak jarri ziyon eskutan Gurutze Santuba, esanik iltzen zegoanari, eskatzeko Jainkuari biotz biotzetik geyena komeni zitzayona, emango ziyola, eta baita ere sendatu ala komeni bazan. Abadea atera zan beziñ aguro, asi zan antsika ta gogotik izketan. Abadea orduban gelditu zan ate atzean ta giltzaren txulotik aitu zuben esaten zubela: “¡Nere Jesukristo Jauna! Zere eskuetan daukazuna guztia. ¿Ni ill bear nazu? ¿Zer aurreratzen dezu ni ill ta? ¿Nola azaldu bear det nik zure aurrean, baldin oraiñdaño oroitu ez panaiz Zutzaz? Emaztea gelditzen da iru umerekin. ¿Nola bizi bear du? Orain nenguen ni Zutzaz oroitzeko ustean!... Ni ill ta ¿zer aurreratzen dezu? Ezer ere ez. Ni errukigarri bat naiz. ¿Nai dezu ill gizon on bat?

¿Bere denbora guztia Zu serbitzen pasa duana? ¿meritu aundiyak agertuko dizkizuna? Orra On Migel abadea. Ill ezazu ori. (Ta abadea aitzen zegoan). ¿Naizu ill gizon gaizto bat, erri guztiya nastu ta ixkamillan ipintzen duana? ¿Gizon ori kendu ta pakea errian egongo dan bat? Ill ezazu Matxin eskribaua, eta arren izan zazu nitzaz miseri-kordia beste bateraño; nik itza ematen dizut, aurrera oroituko naizela Zutzaz obeto oraindaño baño.”

—¡Ja, ja, ja, ja! Etzan motela gizona.

—Sendatu zan...

—¿Sendatu zan beaz?

—Bai; ta eskribauak jakiñ zubenian gauz ori, juezetara eraman zuben.

—¡Ori da kontuba, ori!

—Ez, ez; gertatuba da. Banua.

—¡Ze! ¿Bai al dijua orrenbesterekiñ?

—Bai, beranduba da.

—Eltzekaiya ustuko degu alkarrekiñ.

—Ez, ez; ariyo.

—¿Ta ez al du eraman biar baserriko ku-

tsurik? Artu bitza arrosa batzubek... Oyek ez: zabaldebegiyak daude. Ara: abek, abek.

—Eskerrik asko.

—¡Bai! ¿Pasaitarrena, e?

—¿Zer da Pasaitarrena?

—Nik eskerrik asko esan biarrian, beorrek esatia.

—¡A! Protxu on dizuela.

—Baita beorri ere egitian.

—Urren arte.

—Bijua ondotoxo. Eskumufiak, eskumufiak.

BOSTGARREN JOLASA

—¡Alare lagunekiñ datorrenian!

—Bai, Batista. ¿Nola gera?

—Ondo, jauna, ondo. ¿Ta beok? ¿Zer diyo damatxo onek? ¡Au alabatxua dakarrena! ¡Ze bapa! Azi da gogotik. Beorri baño geiago egin da.

—Bai; abek gora datoz.

—Bai, jauna, ta gu makurtzen. Zartu ta kokotza luzatu, ta sudurra ere bai, ez da gauz onik.

—Ala biar. ¿Oraiñ ere atxurketan ari zera?

—Geiegi. ¡Emen zer dagon balekitekete!
Beto, betoz; atxur geiago baditugu.

—Eskerrik asko. Gerriyak gogortxuak dakazkit.

—Biguntzen dira bada emen ederki.

—Ondo axaletik ari zera beñepin.

—Ala eskatzen du gauzak. Egundafoko ixtilluba daukagu, jauna. Ez du beorrek bere biziyan ikusi orlako komeririk.

—¿Zer da bada?

—¿Zer dan? Diabrukeriyak egiten dizki-gutela lugartzak.

—¿Lugartzak?

—Bai, jauna. Ara: oraiñ ere muturra moztu diyot bati. Begira bezayo: legorreko langosta dirudi. Itxasokuak bezela ditu bi agiñ luze, bakoitza iru ortz txorrotxekiñ, atzaparrak, tripa azpiya, ta gorputz guztiko itxura.

—Ala ditu bai.

—Pizti txarrak dira oyek, jauna.

—Bada badira orla piztiyak ain erruz, zeruba estaltzen dutela, eta Ameriketan gel-

di-azitzen dituztenak zaldizkoak eta burni-
-bidetako trenak.

—iAundiyago da orreatikan ori! Abekiñ bada oso lan gogorra dakagu. Pizti abek eramaten dutena, izugarriya da. Orain ere bi bider piperrak aldatu ditut, jauna. ¿Bada-ki? Piperren zañak ebaki, ta ilda uzten dituzte.

—Orduban kazkarabarrak, uxuak, pintxan-
nak eta burrioyak baño okerrago dira.

—Esango nuke bayetz.

—¿Ta asko da?

—Eunka daude emen bertan ere, ta ka-
biyak lurren axalian egiten dituzte.

—¿Eta ez al da oyentzat erremediorik?

—Erremedioa... Tolosa baño beraxi-
ago omen dago Ama Birjiña Erremediokoaren
ermita (1).

—Ala dago bai, ondo polita.

—Bestela abentzat onena da, egunero lan-
dariak jorratzia. Ona nun duben beste bat;
erdi erditik ebaki det. Ona dala diote ere,

(1) Ermita ori Tolosa ta Irura bitartean zegoen, Irurako partean. Orain etxe-bizitza biurtua dago. (Argitaratzallearen oarra.)

dauden lurren erdiyan, zulo bat egitia, eta an zimaurrea berua botatzia, ta lugartzak biltzen dira berotasunera, eta an bertan txautzia onena.

—Bai, errezago izango da.

—Ara bestia. Muturra austeko lugartzari auxen da onena. Itzal aldian ez da batere, bañan eguzkiyak jotzen duben lekuban, erruz da, jauna. Udan axal-axalian egoten dira, ta neguban oso lurpian sartzen dira. Ona bestia. Kuadru ontan au azkenekua izatitak, ogei pezetako bat emango nuke.

—Aldabako bikariyuak konjuratuko bali-tu, denak ilko lirake.

—¡Emango genioke bada diru ederra! Baña ez da Aldabako bikariyoric emen abek konjuratuko ditubenik.

—¿Zergatik ez?

—Ez omen dute baliyo emen konjuruak. Donostiarrak fede gutxi dutela ta...

—¿Orren gutxi?

—Ala diote, jauna.

—Izan liteke batzubek otz xamarrak izatia, bañan guztitak izango da.

—Nik ala uste.

—Bada fedeik ez dan lekuban, ez da gauz onik.

—Ez, jauna, ez.

—Oraiñ lugartzak jaten badituzte landare batzubek, federik ez balitz, ez lirake faltako beste lugartza aundiyagoak, dituzun bazter guztiyak arrotuko lituztekenak.

—Bai iayeri atiak zabalik utzi besterik ez leoke! Ara beste pixti berriya. ¡Abek ere lanbide ona ematen dute bada!

—¿Zer dira?

—Ar gorrixta me batzubek, gaitz aundiya egiten dutenak.

—¿Bai, e?

—Bai, jauna. Azpitik gora nundik-nai sartzen dira. Ar abek konjuratzeko deitu omen zioten bati, ta konjuratu ta gero eman omen zioten amar pezetako bat ta bazkari ona, jendia oso pozik gelditurik. Bañan arrak berriz azaldu omen ziran, eta galdetu omen zioten nola litekean gertatu ori, arrak konjuratu ta gero. Eta erantzun omen zuben: “Ezta ori gauza arrigarriya. Nik arrak

konjuratu nituben, baña emiak geldituko ziran.”

—iJa, ja, ja, ja! Ez dago gaizki esana. Bañan zubek ere ezer ez bezela ta burubari atz-egiñaz, erdizka esan ta osorik adiazitze-ko gisan sartzen dituzute ziri onak.

—¿Guk, jauna?

—Zubek ez: baserritarrak. Aterakeri marrajotxuak...

—iA jauna! Gu bian egon ordia ta... guk ere zerbait esan nai ta... nolapait moldatu bear ta... Beok lasayago esaten dituzte goitik bera, bai.

—Orain ere beste ziriya sartu dezu zuk.

—Aitzen deguna, jauna.

—Bada, orain urte batzubek dirala, aterra ziran Goyerrin etxetik bi apaiz, ta jun ziran ibilli bidez Ikaztegieta-ko onduan dagon Aldabako etxadi edo barriyo aldera. Bat gelditu zan zigarrua pixtutzen, eta bestiak, nola izaten zuben jolaseko gogua nekazariyekin, aurreratu zan an artogareak ateratzen ari zan baten ingurura, esanik: “Arratsalde on, gizontxua.” “Bai berorri’re.” “¿Artogareak ateratzen ari al zera?” “Bai, jauna.”

“¿Zergatik ateratzen diozute?” “Esango diot: batetik ganaduari jaten emateko, eta bestetik, mesede du artuak, zergatik intza sartzzen zayo artoari eta freskoago egoten da.” “¿Zer arto ederrak dauzkazuten!” “Bai, jauna; igaz denbora onetan baño obeak.” “Igaz ere onak izango ziñituzten, zergatik zimaurre asko botatzen diozuten.” “Bai, jauna, baño ¿ez al daki zer gerta zitzaigun?” “Ez dakit.” “Orrako berorren lagun ori, askok uste du apaiz ona dala baño... gizon gaiztoa da ori.” “¿Zergatik?” “¿Zergatik esaten du? Orrek ondatu ginduzen igaz.” “¿Nolatan?” “Esango diot. Gure apaizari gertatu zitzayon Tolosara jua bearra, eta ori jarri zuten kontu artu zezala gure barriyora, eta ¿zer gertatu zan? Kargatzen da trumoi aundi bat arratsaldera, apaiz guztiyak beren parroketan jarri ziran konjurua, eta orrek nola bai zekien gurea kanpoan zala eta ez genduela nork esti edo atzera eragifiek, guregana bota zuen sekulako arriya... Gu bildu giñan elizara jende guztia, jo genduen kanpaya, erre genituen belar onak, bañan trumoi arri atzera eragiteko ez gendukan bertuterik, eta orra nun kanpo guztia galdurikan utzi zigun. Orrek... orrek...”

—Baserritarren batek sortuba izango da kontu ori ere...

—Ez da sortuba're; egiazko jolasa da. Lengo egunen batian bota emen du arriya Irun aldian.

—Bai, jauna; bañan gabian, ta gabeko arriyak ez du bertuterik, jauna.

—¿Ez, e? Illunpetan ez du ikusiko ta ez jo ere.

—Ez, jauna. Zarretatik ala da aitzia, eta egundaño guk ere ez degu ezagutu. Egunez egiten du gaitzik aundiena, eta batez ere eguerditik labak edo bostak bitarteko arriyak.

—Bai, orrek badu bere izaera.

—Izango du, jauna.

—Alkatxofak politak daude.

—Bai, jauna; batzubek eman dituzte.

—¿Orren goiz?

—Goiz ez da, jauna. San Josietako asten dira udaberrikuak eta beste abek ematen dute geruago, udan.

—¿Ta baburrinak?

—Ondo dijuaz.

—Datoz, esan zazu. ¿Ni sagarrekiñ bezela asten al zera?

—Arrazoi du. Jayo dira ta euririk ez dute geiago biar, baizik eguzki ederra.

—¿Ana Mari etxian da?

—Bai, jauna.

—Barrena guaz bada.

—Bijuaz, bijuaz. Sarri naiz ni're beokin.

SEIGARREN JOLASA

—Batista ¿zer du beyak orrela marruaz?

—Asarre dago, jauna. Atzo umia saldu geniyon ta...

—¿Diru ederrik artuko zenduten beaz?

—Poliki xamar artu degu bai...

—¡Poliki xamar! ¡Poliki xamar! ¿Noiz aoa betian esan bear dezute gauza bat?

—Aoa betian, jauna,... ¿erraz al da ezer esaten?

—Zubentzat ez beñepiñ. Ta ¿zeñi saldu diozute?

—¿Zeñi saldu? Oker esanda zuzenena aitzera emango diot. ¿Badaki Loyolako Anton, Balia deitzen diotena?

—Bai ba.

—Arren semeari, jauna.

—¿Ta jakin leike zenbat diru artu dezuten?

—Aguro esango diogu, jauna.

—Ori galdetzen dizut zergatik beiñ Errenteriko feriyari, arkitu nitzan idi paria saldu zuben batekiñ, ta galdetu niyon: ¿Idiyak saldu omen dituzu?” “Bai, jauna, bai” erantzun ziran. “¿Ta nola eman dituzu?” “Merke, jauna, merke.” Ta etziran geiago esan. Gero bidian ikusi nuben eroslea idiakin, ta galdetu niyon ere: “¿Gaur egin da tratua ona, e?” “Bai, jauna, bai.” “Pare ederra daramazu.” “Ala, bada, ala.” “¿Ta nola artu dituzu?” “Dirubarekin. Garixti, jauna, garixti” erantzun ziran ojuka, ta ez batak eta ez besteak etziraten esan zenbatian sal-erosi zituzten.

—Jolaserako gogua zeukala usteko zuben ta...

—Beti kezka.

—Guk bada bi ontza t'erdi artu ditugu, jauna.

—Ez gutxi ere.

—Ume galanta zan ordia.

—Ala zan, bai. ¿Badakizu bidian ikusi detala Galburutxinpartategiko gizona?

—¿Ikusi du beaz?

—Bai; oso galduba dago gizon ori.

—Ala dago, bai. Erariyak, jauna, erariyak.

—Orduban oker dabill.

—Aisa dabill oker. Frankotan ikusten al degu okerka.

—Ez da bada okerka aisa ibilduko.

—Ez gizarajua, ez. Orain berriro etxetik ateratzen asi da. Len ere egon zan estuturik buruba nastu ta gorputzeko dardarrako aundiyakin, ta pixka bat konpontzen asi zenerako, eman zion bere erariari, ta orra ze itxura artu duben berriz.

—Ez dakar itxur'onik, ez.

—Gezurtatuba nai nuke atera, bafian us-te det denbora gutxiko gizona dagola.

—Ala diruri.

—Ta famili gajo orrek errukitzen nau. Len azaltzen zan bezela, ta oraiñ oso eroriya dago, jauna. Negargarriya da. Etzan, jauna, inguru guzti abetan orlako baztarrrik. Orko soro-baratzak, zoratzen zuten bat; bañan gizon ori etxeko lanari utzita gurdiyarekin batera ta bestera astia, izandu da famili guztiyaren ondamena. Atxurren orde akulluba artu, goizetik pipa piztu ta bidian sartu trabena batian, ta bestian ere bai; diru geiago irabazteko asmuarekin ibilli jo batera ta jo bestera, ta ardiapat azaltzen ez etxian... Gero asi zan feritik ferira, ta gabetan geruago ta etxeratze kontu gutxiyago... Andre gajua goizetik arrats ler egiten lan gogorretan, aurrari're kontu artu biar, ta guztiya arrastaka, jauna. Andre gajua nekatuba, gaberdiyan gizonaren zai...

—Bai; ta etxian beriala sesiyua.

—Ori jakiña. Gizon ori etxian dan bitartian, ordu beteko pakerik ez. Aurak berriz zer ikusi ura ikasi...

—Bai; amaika ikusten dira orrela. Ta gaitz erdi beren buruben kaltian bakarrik balitz, bañan jartzen dute famili guztiya ix-tillu gorripian. Erariyari ematen diyona, al-

pertzen da, ajolakabetzen da, ta danik gogorrena ta osasunik oneneko gizona, ikusten da, sasoirik onenian, mundu au uzteko zalantzan.

—Bai, jauna. Etxe ortan ere botiketan jun dan diruba...

—Gorputza galdu, ta animarentzat ere azken ordu txarrak.

—Ala da, jauna.

—Ta erariyak beñ artu ezkeru, zalla da uztia.

—Ala izan biar du, bai.

—Asmuak artzen dira batzubetan, gaur utziko... bigar utziko... bañan ortarako gorputzari oso gogor egiñ biar zayo. Ara beñ zer gertatu zan. Zegamako emakume bat mintsu egonik, jun zan izen aundiko sendagiñ edo mediku batengana, eta aren aurretik konsultako zegon gizon bati, medikubak ikusi zubenerako esan zion: “Edo aiz tabernaria, edo errotaria.” “Ez dabill urruti —eranzun zion—; orrela gaitz guztiak asmatzen baditu, sendatuko nau, bada ofizioz errotaria naiz, eta gañera trabena eduki genduan orain dala bi urteraño, baña

denbora orretan nere andreak trabena etzala guretzat ona esaten zuan, eta utzi egin genduan.” “Ezagun dek bai zeñ aizen... ¿Ardo zalea izango aiz?” “Bai, jauna; orrek nauka bizirik.” “¿Bai, e?” “Bai, jauna.” “¿Mozkortzen al aiz?” “Iñoiz bai, jauna.” “¿Mozkortu ere bai! Ezagun dek bai. ¿Askotan?” “¿Ai bada, jauna! Gu bezelakuak ez du beti izaten modua...” “Ara gero... emen esan bear dituk ire faltak konfesoarri bezela; kontu gero. ¿Astean bein mozkortzen aiz?” “Bai, jauna, jai egunak jakifñak ditut.” “¿Bai, e? ¿Geiagoetan ere bai? ¿Zenbat aldiz astean?” “Esango diot bada. Trabena genduenean, janarekin egin bear nuen gastua, egiten nuen ardoarekin eta bete xamar geienean ibiltzen nitzan, bañan orain astean batez beste iru egun ainbeste-koak izaten ditut, bañan adi beza, balantza xamarrean izan arren, nerau etxera joaten naiz.” “¿Bai, e? Deabruyen gizona... ezpadiok utzitzen bizio orri, laster illko aiz.” “¿Illko ote naiz bada?” “Bai eta laster.” “Nik uste nuan bada ardoari utzi ezkeror illa nenguala; inere andreak zer poza artuko duan ori aditzean!” “Ik egin bear dek iru egunean ankaetatik artu oerakuan ba-

ñuak mostazarekiñ, eta aurrera paper orrek esaten dituanak egiñ ondo, bestela galdua aiz.” “Bai, jauna, bai: biziagatik egingo ditut.” Gizona atera zan eta emakumia gelditu zan konsultan. Andik ordu laurden batera arkitu zan emakumia kalia, barrenko moteltasun edo flakiyarekin, eta nola baizegon mintsu, sartu zan trabena txulo batian salda pixka bat artzeko asmuarekin. Eraman zuten gela txiki batera, nun arkitu zuben gure konsultako gizona bakarrik mai baten aurrian txiki erdiko botilla arduarekin...

—Etzegoan orreatik orren bakarrik...

—Ta ogiya ta gaztarekiñ. Arriturik gelditu zan emakume ori, eta zifaturikan esan zion: “Gizontxo, ikaratzen nazu. Ainbeste kontu eman dizu medikuak esanaz ez ardurik erateko, eta zorrenbeste ardo eraten arizera?” “Demoñu txoroa. Bañan ez al dion aditu nola esan didan iru egunetik aurrera asitzeko erremediotan? Iru eguneko libertadea badiñat, eta oyen protxuba ondo atera bear diñat, bai; geroko parteak bear dizkiñat atera iru egun oyetan.

—Etzuben gauza zuzenik egingo.

—Ez bada. ¿Arrosak gogotik daude emen oraindikan?

—Bai, jauna. Bañan igande arratsaldetan ez dakagu pakerik soldaru ta mutill koxkorekiñ. Itxubak dira loretara, ta bata bestien bizkarrera igo ta eramaten dizkigute nai dituzten guztiyak.

—Or dijuan jaun orrekin bi itz egin biar nituke... Gero arte Batista.

—Gero arte bada, jauna.

ZAZPIGARREN JOLASA

—¿Tipulak biltzen ari al zera, Ana Mari?

—Bai, jauna. Tipulak aurten diru aundiya egiten du. Iru milla jarri nituen, eta batez beste kuarto bana emanta're... ¿badaki? diruba da.

—Beti diru artzen ari zerate.

—iA jauna! Guk pixkaka-pixkaka artu ta ogiyarentzat diña atera ezkerro kontentu. Gero buru galtzerik ez, dirurik ostuko diguten edo ez, ta amets larririk gabe, lo gozoago egiten degu.

—¿Ta txekorren dirua're jan al dezute?

—Beste zuluak tapatzeko aguro zabaltzen ditugu, jauna, bai.

—Bai, zubek egiten dezutena da kuarto batzubek izatian zillarretan biurtu. Pezetak baldin badira, bost pezetakuengatik truka-tu, gero aben ordez urria artu, al bada urre xarra, ta galtzerdi batian gorde.

—iEz da gutxi galtzerdiyak soñerako're izatia!

—Obe izango dira, bai; zergatik galtzerdi-yak izan litezke galtzeko erdiyak.

—Bi zulo badituzte, ez da gaitz izango.

—¿Zein zan len atian?

—Eskale bat, jauna. Orlako korritubak izaten ditugu guk. Esan diyot ostiraletan ematen dala, ta eranzun dit urte bete ontan ez dala etorri.

—Orduban ostiral franko atzeratubak bada-kazki artzeko.

—Egun abetan, jauna, uste det probin-tziyan diran ijito guztiyak emen dirala. Gaur goizian etorri zait bat eta gogo txar-retik eman diot...

—iJesus! Gogo txarretik eskaleari...

—Gogo txarretik... ez bañan... ¿zer nai du? Batetik ostirala ez izan, eta bestetik aifñ itxura gaiztua zuben... Bada izan da aski lotsagabia, jun ta andik ordu betera berriz etortzeko beste bat balitz bezela. “Bañan, emakumia, —esan diyot— aristiyen eman dizut ta ¿berriz zatoz?” “¿Neri? Ez andrea.” “¿Ezetz? Arpegi ori bera, txaketatik asi ta jantzi guztiya're bai...” “Nere aizpa izango zan.” “¿Ta kokotzeko urratu(b)ori?...” “Bai, andrea, bai, oso nere antza aundia du.”

—¡Arrayia!

—Gero etorri zait beste bat zesto batekiñ. eta eskatu dit amar pezeta zestoarengatik. Nola gobada biltzeko egokiya iduritu zaitan, eskeñi diyot sei errial, eta eman egin dit.

—¡Ezta Bayonako judubak ere!

—Gaurko egunian, atiak itxitzia onena. Pobriak esaten da bañan... pobre artian ausardi aundiya dago, jauna, ta nola-nai sartzen dira. Gaizto asko da: onak ere bagera bai... edo, badira; guk ere eziñ esango degu zer geran.

—Egiya. Atzo bada pasteleri batian sartu zan ijito bat eskian. Eman ziyoten bi zen-

timoko bat, eta beste bi trapu puxka zar batetik aterarik, esan zuben: "Bekar orain lau zentimoko pastela."

—¡Litxarrerriya! Obe zuben arto berujan.

—Ara; abek ere laguntxo on batzuek badaude.

—¿Zer?

—Bariak, jauna.

—¡A!

—Egoaldi sargoya zeguan, turmoyak jodu, ta beriala azaldu dira.

—¿Abek ere gauza zuzenik ez dute egingo?

—Ez, jauna. Nundik-nai sartzen diran likixkeri oyek, sasi ta pareta zarretatik intza asten dubenian, eta emen ibiltzen dira nai bezela, beok Bolibarko pasiuan bezelaxen.

—¡Ja, ja, ja, ja!

—Bederatziyetan etorri ezkeron onera farolarekin, ikusiko lituke landare guztiyak estaliyak oyekin, eta goiz aldera juten dira patxara guztiyan beren txuloetara.

—¿Txanda egiten dute beraz lugartzakin?

—Bai, jauna. Lugartzak billatzen dute eguzkiya, ta bariak eta karakolak estalki ya edo bustiya. Ona beste bare bat.

—¿Ona? Txarra izango da.

—Ez bizi ro ona, ez. Orra, eskutan artu ezker o ez da orren kutsurik juten duben lingardarekiñ.

—Nazka ematen du, bai.

—Aurreroko urtian atiak genitubenian, zakuka biltzen genituben.

—¿Ta orain ez al dezute aterik?

—Ez, jauna.

—Baratzako atia, etxeko atia, ta barrenen ere bai beste ate asko.

—iTa ez jakiñ berorrek nik zer ate esaten ditutan?

—¿Ta?

—Bada atiari asko gustatzen zaizkate bariak.

—¿Bai, e?

—Bai, jauna. Batez ere karakolak. Itxubak dira karakoletara. Ematen zaizkate bariak pusketan, eta karakolak zanpatuta.

—Orra bada; zerbaitetako onak dira.

—¡A! Bai, jauna. Emen gauza baterako txarra dana, besterako ona da.

—Orregatik esaten det bada ez dezutela negar geyegirik egiñ biar.

—¡A, jauna! ¿Etsai gutxi ditugula uste al du?

—Zubek guztiya aukeran nai dezute ta...

—¿Guk? Esan diyot bada; ogiyarentzat atera ezkerero...

—Lukainkentzat ere bai. ¿Nun dabill Ba-tista?

—Aldamenian da, Mikolaxen etxian. Ja-kingo du nola ezkondu dan...

—¿Nola? Bestiak bezela ezkonduko zan.

—Bai, jauna, bañan...

—Gure Mixolax ¿ezkondu da beaz? Eta zeñekiñ, eta norekiñ...

—Ezkondu da, jauna, zeraren... zerare-kiñ...

—Beste Zeamako andre ura senarrarekiñ bezela asten al zera?

—¿Nola bada?

—Onela: “Prantxixku ¿ez dakizu zer pasatzen dan?” “¿Zer bada?” “Zeraingo zera zertzen omen da zereko zerarekiñ, eta ayek zertzen badire, iñolaz ere zereko zerera zertuko dire.” “Emakumia, zer esan nai dezun zer orrekiñ ez badezu obeto zertzen ¿nik nola zertzia naizu? Nik zertzekotan zer ori, obeto zertu zazu.” “Bai... zu beti nere uts-egiteak arrapatzen zabiltz eta far egiten.” “Tira, tira...” “Ara bada, lenago buruba beste lekuban nekarren ta...” “¿Nun? Lepo gañean ez?” “Nere lanean; eta esango dizut. Zeraingo Ixabelen alaba, ezkontzen omen dala Segurako indiano batekiñ, eta ayek ezkontzera ezkerro, ortikan Zeraiña jungo dirala.” “Bañan ¿nola arrano nik bururatu bear nuen orrenbeste zeren zera zertuekiñ?”

—¿Zeama ortan gauza asko pasatzen dira noski?

—Ala diote. Seguratarrak lotzen dizkate ayeri, diranak eta ez diranak, eta jakiña da. Beaz Batista...

—Mokadu bat artzera jun da ezkonberriakiñ. Deitu diote arren zai dagola legatza illarrekin ta...

—Legatza Mayatzian txanponian.

—Bañan ez gaurko egunian. Lengo denboretan izaten zan bi errialian arrua, eta gu bezelako baserritarrak gurdiyak beterik arruaka eramaten zuten legatza ondu ta urte guztiko bakallaba egiteko.

—Bai, bai; aitu izandu det nik ere ori. Ayengana nua.

—Ondo egingo du.

—Ez dakat gogo aundirik legatza jateko; illarrekiñ legatza baño naiago nuke ollaskua.

—Ez da batere txarragoa, ez. Alare, tri-pak, subak eta urak zenbat eman ainbeste eraman.

—Banua, bada.

—Bijua, bijua; umore ona izango dute beñepiñ. Bañan esan bezayo Batistari bigar goizerako kontubak ateratzeko gero.

—Txintxuegi da aztutzeko, bañan esango diyot, bai.

ZORTZIGARREN JOLASA

—¿Agertu da, agertu da?

—Bai ba, Batista. Atzo an omen ziñaten.

—Bai, jauna, ta ez nola-nai're; txiki ta aundi, pamili guztiya.

—Ondo egiña.

—¿Badaki? Prozesiyua ere ikusi bear genduela ta...

—Ori. Urtiak dira orren ederrik egiñ ez dala.

—Ikustekua zan, jauna. Bañan beorri kanpuan zan...

—Prozesiyo ondoren kotxia zai nekarren ta atera nitzan.

—Bada jun giñan gero beoen etxera ta...

—Ezer ere etzenduten eraman ¿ala?

—¿Eraman?

—Ezer ez: letxubak, illarrak, esparraguak, arrautzak, ollaskuak, marrubiyak eta esnia besterik.

—Beste pruitta batzubek nai genituben, bañan eramango ditugu eltzian.

—¿Eltzian? Baita paziyan ere nai badezute. ¿Ez al zenduten ezer geiago etxian?

—Ixillik bego, jauna. Guk izan genduben pena beorri Pasaira juna.

—Nik ere atsegiñ izango nuben zubekiñ arkitzia. Bañan aurreko urtian gertatu zitzairan Ernanira jun biarra adiskide baten bidez, eta aurten Pasaira beste batekiñ kunplitzera.

—Bai, batekin ta bestekin ondo irukitzeko txanda egin biar.

—Biarko. Berak ere nerekin ala izaten dira.

—Gu bada bestela, beorri an ez izanaren damua alde batera utzirik, bapo jan t'eranta artsaldia pasa genduen.

—Atsegin det, atsegin det.

—Ezagutuba dago, jauna. Uste nuben bazkariyak etzubela azkenik.

—¿Ez, e?

—Ez, jauna, ez. Beorren alabatxuak piana jo zuben, ta sekulako dantzak izan ziran. Ana Mari herriz, txoratuba beorren kosmodamakiñ, eta ez da gutxiyotako an agertzen diran gauzekin: egundañoako palaziyuak, ontziyak, erriyak, elurteko mendi-yak, guztitatik badago, jauna, ta ber-berak dirudite. Joxpiñaxi gero beste soñu bueltako polit arreakiñ, ta gezurra diruri kartoi biribill oyekin jotzia nai dana. Ni etxe-koandriarekiñ berriketan... ta orla. Gero Antoniyo loruarekin zirika ta mirika etzan gelditu asarreazi zuben arte, ta azkenian mokuarekin biatzian eman ziyon beria.

—¡Ja, ja, ja, ja! ¡Gizarajua!

—Bai, or dabill biatz lotubarekin. ¡Kozk ona egifi ziyon bada!

—¿Orrenbesteraño?

—Azkazala batetik bestera zulatu ziyon ta...

—iGizarajua!

—iZe indarra duten mokuan oyek!

—Izugarriya.

—Manueltxo ta Luisatxo berriz beste jox-tallubakin... eta ala bapo egon giñan illunabar arte.

—Obe, obe.

—Orra bada ze egun ederra pasa genduben, ta ori, azken juiziyokua izanik.

—¿Zuk ere aitu al dezu zerbait?

—Bai, gure ingurutan beñepin franko itz egin da gauz ortaz. San Juan ta Korpus egun batian...

—¿Ta zer?

—Beti're... buru galtze pixkabat ematen zigun.

—Ori bera gertatu zan lengo eunki edo sigloan 1734-an, baita 1666, 1546 eta 1451-an. ezer orlako gauzik gertatu gabe. Elizak jarriya dakar Errezurreziyoko Pazkua ezin izan litekela Epaila edo Martxuaren ogei ta biya baño lenago, eta ezta're Apirillaren

ogei ta bosta bañan berandubago, eta ala Korpus egun aundiya, eziñ erori leike Matzaren ogei ta bata bañan lenago, eta Garagar-illaren ogei ta laba baño geruago. Bi denbor'aben bitartian gertatzen dira txandutzen diran Elizako egun aundiak. Korpus ta San Juango gauz au, gertatuko da berriz 1943-garren urtian eta gaur bizi diran askok ikusi lezateke.

—Guk ez beñepiñ.

—¿Ez, e? ¡Nork daki!

—Jaungoikoak jakingo ori.

—Bai, Batista. Bada geruago eroriko dira egun oyek batian, 2038, 2190, 2258, 2326. 2410-garrengo urtetan eta gisa ortan aurre-rago.

—¡Zer dan ez jakitia!

—Gizona, Mezetako liburuak ere bada-kazki denbora puska bateko egunak orrela jarriyak.

—Ez jakifñ ordia bada guk, ez jakifñ.

—Al danian bada ikasi.

—Etzait aztuko jauna, ez.

—Errezurreziyozko Pazkua erortzen da

Epaila edo Martxuaren ogei ta biyan, ill ontan ill betia ogei ta batian izatian ta egun au larunbata gertatzian. Au onla gertatzia zalla da ta izandu zan 1593, 1698, 1761, eta 1818-ko urteetan. Datozen beste iru eunki edo siglotan, ez da gertatuko Pazkorik Martxuaren ogei ta biyan 2285, 2353, 2437, 2505, 2972, 3029, 3041, 3648, 3925 eta beste asko onla kontuan arturik daudenak etorri arte.

—Ori da jakitia, ori. Gizonak sayatzen dira.

—Bai; bañan abek gauza zarrak dira.

—Ez guretzat.

—Tolosan zezen ederrak omen ziran atzo. (1)

—Ez det ezer aitu, jauna. ¿Ta beorri ara jun gabe?

—Milla ta zortzireun ta irurogei ta seiyan; au da, orain dala ogei urte, izandu nitzan azkeneko ango festetan.

—Denboratxua da.

—Bai; ta orduban zezen bat zorretan utzi

(1) Ain zuzen, San Juanetan izaten dira Tolosan festak. (Argitaratzallearen oarra.)

ziguten, eta ordaña artzeko zai nago ara juteko.

—¿Zer egin zuten bada?

—Seigarren zezena jokatu gabe, ill zutela bostgarrena baño len.

—¿Ta nola gerta leike ori?

—Orduko gora-berak esango dizkitzut: Urte artan San Juan bezpera bezperan, illaren ogei ta biyan, izan zan Madrillen naspilla aundi bat, eta eztakigu zer, bañan kontubada, Tolosako zezenetarako azaltzen zan aurreneko zezen-iltzalliak, alde egin zubela Bayonara. Arrek berekiñ zuben jendian, agertzen zan besteren orde zezenak illtzeke, Praskubelo, zube deitzen diozuten bezela. Egundañoako jendiak giñan Donostitik, eta plazaren lau erdiyak eta geiago artzen genituen guk.

—¡Ezta gutxi ere!

—Asi ziran zezenak jokatzen, eta bostgarrena zan aundiyenetakua. Iltzeko garayan, eman zizkan Praskubelok bost edo sei kolpe...

—¿Ezpatarekiñ?

—Lana frankorekiñ; bañan zezena beti

zutik, eta bera baño lenago besteren bat mundu ontatik bialtzeko asmuarekiñ. Praskubelo estutuena arkitzen zanian, botatzen du seigarrenak atia, azaldu ta beriala ekiteyo Praskubelori bostgarren zezenaren aurrian zegoala, eta kontu artzeko denborik gabe, ematen diyo ezpatazo bat zezen preskoari, eta nun botatzen duben ankaz gora, esan bezela, dar-dar, lau aukak gora aldera zitubela. Beriala etorri zan muñ-jotzalle edo katxeterua, eta arren kontu eman zuten.

—¡Gezurra diruri!

—Ala diruri bai, baña alaxen gertatu zan. Zañen bat ikutu ziyon ta, orla elbarritu zuben. Seigarrena ill ta gero, ordu erdi bat pasa zuben bostgarrena etzan-azitze-ko. Guk sei zezenen kontuben dirua eman genduan, eta nola seigarrena etzan jokatu ez kapa, pika ta banderill edo makill paper kizkurrezkuekiñ, eskatu genduan beste zezena, ojuka ta indarrian; ¿badakizu? bero xamarrak geunden gu ere, gure kafiak, kopak, zerbezak eta gañerako zerakiñ ta...

—Izango zan zerbait, bai.

—Gure abotik atera ziran kaso oyetan esaten diran gauza zuzen ta garbi guztiyak.

—Bai, bai; lan aitzen diranak! Beñ ba-
karriz izandu naiz, eta etzait gogorik egiñ
berriz juteko. Jendia geiegi arrotzen da
orduban.

—Ala da. Kartzelan sartu nai ginduzten,
bañan asko giñan, eta guztiyentzat lekurik
etzan; utzi ginduzten gure ojubeñ, ia ler-
tzen ote giñan. Beste zezenik ez omen zan.

—Orduban zalla izango zan ateratzia.

—Orrengatik ezan dizut zezen bat zor di-
gutela Tolosarrak.

—Barkatzia izango da bada onena.

—Arrazoya dezu. Ordutik asi zan Pras-
kubeloren soñuba. Ta guztititik itz egiteko,
¿badakizu itxura ederreko artuak ikusi di-
tutala?

—Bai, jauna; artuak inguru abetan plan-
ta polita dakate. Jorratu egin bear. Artuak
bere sasoyan jorratzen ez ditunak, lan txar-
ra dauka, zergatik gero belarrak itotzen
ditu, lurra zikintzen da, eta artua gelditzen
da belarren azpiin, eta biar du dolbe den-
bora.

—¿Ta zer garai da onena artuak erei-
teko?

—Artuak ereiteko... esaera dan bezela: San Markos astia, atzia baño aurria obia; edo beste gisara: San Jorji, artuak eregiteko goizegi; San Markos, ereiñak balegoz.

—Eta egun bat besterik ez dago bitarte.

—Ez, jauna.

—Gogotik egiñ biarko da orregatik egun artan lana. Anttoniorengana nua ia xentimo batzubekiñ biatza sendatzen ote zayon

—Poza artuko du, bai.

—Beriala naiz emen.

—Nai duben bezela, jauna.

BEDERATZIGARREN JOLASA

—¿Nola daude gariyak, Batista?

—Or daude ondo tente. Aurten lasto luzia ta galburu txikia, jauna, eta izango du ale gutxi.

—Gizon luze me bat bezela beaz. Ezur asko ta aragi gutxi.

—Or nunbait, jauna. Gariik ebaki ta arbiyak egiñ bear. Gu txikiyak giñanean eta ituleen ganaduen aurrean ibiltzen giñanean, biltzen ginduzen lurrean eroriyak zeuden galburuak, eta egiten genduen opilla gari arrekin; opillari sartzen giñozkan erdiin

arrautzekin ta bakallabakin egindako torti-
lla, eta gure pozik aundiena izaten zan, San
Juan txikietan Iturrioz-ko ango zelai eder
artan merendatzea.

—¿Ura mauka, e?

—Bai, jauna, bai. Etzan munduan gure-
tzat gauza oberik.

—¿Naiko illarra badakazute oraindikan?

—Bañan aunditu ta gogortzen dijua.

—Neri bada aza-illarrak geruago ta obia-
go iduritzen zaizkit.

—¿Bai?

—Zergatik zikintzen ditugun tomate pix-
ka batekin ta...

—Leunduko dira orduban ederki.

—¿Eta zer diyo sagarrak?

—Sagarrak ez du ezer esaten, bañan era-
kusten du alia, eta aziya dauka, jauna. San
Juan egunian arbola azpian lau sagar ga-
ñian, ondo dan siñalian.

—Gero zazpi izango dirala ¿e?

—Bai, jauna.

—Zerbaiten biarra badago.

—Ez da gezurra.

—Inguru abetan bai omen da bada arbol bat, sei karga izango ditubena.

—Bai, jauna, bai; badakit zeriñ arbol dan. Lengo urteetan eman izandu ditu zazpi kargataño're.

—iArrayia! Orlako batzubekiñ ez da urte txarra izango.

—Ez, jauna, ez. Arbol ederra da, eta azpiyan egon litezke berreun gizon.

—Eta upel bat ta sei zestera lanpern ze?

—Ori da. Alerik ez duten arbolak osto ederra daukate, eta aurten ematen ez badute, osto ederra dubenak, datorren urtian emango du.

—iZe esperantza!

—¿Esperantza? Aurten osasuna duben gizonak, urrengo urterako esperantza izan lezake.

—Beti badituzute zubek aterakeriyak.

—¿Aterakeriyak? Gure denboran gure buruban aini gutxi sartu da, ezen ez da askorik aterako, ez. Beok bezala ixturiyotan...

—iZe ixturiyo! Zuben koplak dira oyek.

Guk burubekiñ baño, zubeak sudurrekiñ geia-
go ikasten dezute.

—Orrengatik izango ditugu orren luziak.

—Orrengatik luziak ez: luziak dituzute-
lako antz eman gauzari.

—Izan leike bai.

—Orra Jaungoikuak ordaña eman.

—Ez motxa're.

—Ez, ez, luzia. Ta inola urte batzubetan
sagarra ona ta ugari izanik, gertatzen dira
sagardo txarrak?

—¿Sagardo txarrak, jauna? ¡Bai!... ger-
tatzen dira, ta ori da egiñtzalleen alperke-
riz. Upelak ustutzian, ondua ez dute garbi-
tzen, ta nastuba izaten da. Kontu oyek erri
barreneko kontubak dira. Beste baztar abe-
tan eta zenbat eta Donostitik kanporago,
gauza garbiyaguak izaten dira.

—Eta inola urte batian ta bestian saga-
rrik izan gabe, sagardua izaten da?

—Oyek ere, kaletarrak egiten dituzten
abillidadeak dira, jauna.

—Gorroto pixken bat inba ote diezu zuk
kaletarrai?

—Ez, jauna, ez. Jainkuak nai ez dezala, bañan...

—Obe, obe.

—Atzo konprimaziyuan genituben, jauna., Mañubeltxo ta Luisatxo.

—¿Bai, e?

—Bai, jauna. Kandela eramán zuten, eta Ana-Mariri papera eramátia aztu. Galdetu omen ziyoten bere bigarren deituraz, bada-ki, ama zanarena...

—Bai, bai.

—Ta ez omen zan oroitzen.

—¡A gaxua!

—Gero berriz ere galdetu ziyotela emengua zan, ta “Bai, jauna, emengua, Urniyetan jayua” erantzun omen zuben.

—¡Ja, ja, ja, ja! Ana-Marientzat ez da gutxi gero ori...

—Ez, jauna, ez.

—Eta aurrak negar egiñ zuten?

—Bai, jauna. Denbora luzian egon ziran ta ¿badaki? aspertu.

—¿Ta Joxe Erramunen berririk ez dezute?

—Ez, jauna, batere. Ura... matematika guztiyak jo ta... aizia buruban ta ibilli munduban... jun bazan, jun zan. Ez lanerako ta... ez ezertako. Ogiya ateratzeko ere ez.

—Obe du sartu atera baño. Txoraturik egongo da an.

—¿Ameriketan? ¿Zerekiñ?

—Naiko diruba badala ta...

—An ere bakuitzak beriak ezagutuko ditu, bai.

—Bai, Batista, bai. Ez da gezurra.

—Amaika modutara bizi da mundu ontan jendia.

—Bai amabira ere.

—Bañan gaizki dabillanak, beti berekiñ barrenen arra.

—Orixen bai. Bada badakizu Amezketararak...

—¿Amezketarrak? Ez ditzairala aitatu ere. Gure sukaldian itotzeko zoriyan jartzen gaituzte. (*euliyak*)

—Ez ditut Amezketar oyek esaten, baizik zu ta ni bezelakuak.

—Beorri ta ni bezelakuak badira, ez dute Amezketako kutsu aundirik izango.

—Aditzera nai dizut eman, Amezketako jendiak...

—¡A! Bai, jauna.

—Badakizu esaera dala, lapur famatua izateko, Amezketan jayo, Zaldibian azi, ta Ataunen bizi.

—Aitu izandu det, jauna, neronek ere txantxetako esaera ori.

—Bai; gañera esaten du, leku oyetan geienak biartubak edo diru eskasak izanik, argiak eta azkarrak ateratzen dirala.

—Bai, jauna, bai.

—Bada Amezketan denbora batean zu gizon bat, zuena mando txiki bat berarekiñ oso mantxoa, baña beste gañerakoekin ostikalari izugarria. Gizon ori bere mandotxo onekin juaten zan feri guztietara, eta beti ekartzen zituan, mandoa berekiñ eta ontza urre bi edo iru geiago.

—Azkarra izango zan bai.

—Esan dedan bezela, berarekin oso mantxua zan mandoa saltzen zuan, eta bereala ostikoka asi ta ezin menderaturik, erosten zutenak asten ziran gizon orren billa. Jabe zanak pasatzen zion eskua iztar artean, eta ibilliagatik nola-nai, oni etzion ezer egiten; ematen zien berriz, eta mandoa beti lengoa, au da, ostikalaria. Gizon jabe ori, obeto ezagutu zezan, jartzen zuan zapel kapelu aundi bat: bereala berriz ere billatu eta desegiten zuen tratua, zortzi edo amar duro galdurik erosleak. Berriz ere ipintzen zuan mandoa salgai, eta berriz ere saldu ta mandoa lengoa. Guztiak ill bearrik asten ziran kapelu zabalaren billa, billatzen zuten, berriz erosleak galtzen zuen, eta Amezketarra bere mandoarekin eta naiko diruakiñ etxera. Urrengo ferian ala berean, eta gis onetan mandotxoarekiñ mantentzen zuen bere familia.

—¡Etzeguan apareju txarra! Beretzat zeramazkien ontz urriak. Garbiyago nai litzake dirua irabazi. Obeto bizi leike beste moduz.

—Ala da bai, Batista. Bada mundu ontan ondo bizitzeko, esaten dan bezela, ara-

kiñekin gosaldu, ixkribabakin bazkaldu ta mandazayekin afaldu.

—¿Eta baserritarrekin?

—¿Baserritarrekin? Errosayua errezatu.

—Ori izango da seguruenena, bai.

—¿Nikolax etxian ote dago?

—¿Mikolax? Etxian izango da, jauna.

—Araño nua bada.

—Orduban gero arte.

—Gero arte.

AMARGARREN JOLASA

—¿Zer berri degu, Batista?

—¿Berriyak? Zarrak berri, jauna.

—¿Zer txori dira emen dabiltzan abek?

—Pintxanak: arbol ontan dago kabiya ta umetan egon biar dute.

—Ez det ikusten kabiya.

—Goi goi aldian du, jauna. Zirifia egongo da lurrean aren parean.

—Bai, bai, orain ikusten det. Ta kabi polita egiten dute.

—Polita ta sendua.

—¿Badakizu gaur bero egin dubela?

—Gogotik, jauna. Madalenaz bero, agatarra gero.

—¿Gaztañak botatzeko sasoiya badatorrela?

—Ori.

—Goizagotik beaz. Gaztañak botatzeko ego-aizia.

—Mutill ona da, bai, ortarako. Bero onekin jendia erruz omen dator Donosti aldera.

—Gogotik: eltxua bezela badator.

—Bai; aurtan baztanga soñurik ez da izan, ta kolera murmorik ere ez... gafiara pakia're izango dala ta...

—¿Bai, e?

—Bai, jauna; urte batzubetatik onera txarrak ondu dira ta... onak txartu ta...

—¿Pot, e?

—Batez beste, jauna.

—Orrekiñ ere zerbait esan nai dezu zuk.

—¿Guk zer esango degu, jauna?

—Tori, tori zigarrotxo bat, bigar igandia da ta...

—¡A zer zigarrua! Geruago ta aundiyago dakarzki bedorrek. Eskerrik asko, erreko degu pipan beorren osasunera.

—¿Pipan? Kafien ondoren osorik.

—Kapia... bai. Kapeteian enaiz oraindik bi bider besteik arkitu ta ori beorrekiñ. bañan noizik beiñ guk ere kape ori artzen degu, jauna, bai; ta nere emazteak egindako kapia baño, geiago gustatzen zait Joxpifiazik egindakua.

—Kontu, Batista, kontu...

—Ala da bada, jauna.

—Ana Marik adituko balizuke iona jarriko litzake!

—¡Bai! ez da estutuko orreatik, ez.

—Arrixkatuba da gero ori esatia...

—¿Ez daki zergatik? Emaztiak botatzen diyo gaur kape puxka bat ur beroari, ta ezer esaten ez badet, urrengo igandian gutxixago, urrenguan gutxiyago, ta orrela. Bañan nola Joxpifiaziri bere poltsatik ez dijoakiyon, liberdi bat gora bera etzayo ajolik, jauna,...

—¿Ta zuri ez al zaizu ajolik?

—Nik obia arkitzen det eta, nola ikusten ezdetan... miñik ez dit ematen.

—Esango dizut bada orain, gizon prestu zar batek, denbora gutxi dala, esaten zirana. “Gaurko eguneko gaztiakiñ eztago, jauna, kontu zuzenik. ¡Non dira gure denborak! Gizon egiñ nitzan arte, ez nuen, jauna, nik jakindu kapeik izaten zanik ere. Ta esango diot nola jakindu nuen. Beiñ batian Zumarragako periyaa lagun batzuekiñ alleaitzia gertatu zan. Geen bazkari-legia egin genuen, jauna, ta, ostatuan zan, (ondo gogoan dakat), bukaerakoan, alako gauza beltz bat jarri ziguten, jauna, aurreko aldian, katillu batzuetan. Ardo koloria dik bada onek, bafía eztek ardua izango tamañ’ontan, nion nere artean; eta nere bazterreko lagunak ere eztet uste ni bañio abillagoak zirala edarri jenero ura zer zan somatzeko, batek edo bestek usai egiñ geniolarik. Bageunden baa, jauna, bageunden, elkarren lotsaz bezela, ta, alakoik batian, mayaren beste aldian zegoen kaballero moduko bat asi zan artzen. Orduan baa, asi giñan gu ere, jauna, eta artu ere bai. Nik eta nere lagunak gero jakindu genuen, jauna, kapia zuela izena. Ogei ta lau urte kunplituba nitzan ni, jauna, eta

lagunak ere ingurutsu ortakoak. ¡Non da orain alako konturik, jauna!

—¡Ez da gezurra! Gaurko egunian jayo orduko kape ori ta ezpañetan zigarrua ez da palta.

—Ez, Batista, ez. Banua. Bigar al bade-gu jira bat egingo det.

—Atsegiñ izango degu; betozte guztiyak, guztiyak.

—Denborak laguntzen badu. Adiyó, Batista.

—Bijua ondotxo. Bigar arte.

AMAIKAGARREN JOLASA

—¿Belarra ebakitzen ari al zera, Batista?

—Bai, jauna, bai, orain du bere denbora. Belarra ebakitzeko, ill bera; bestela ill berrian ebakitzen bada, austu egiten da ondu gabe. Azitako're ill bera, bañan ill berrian erein leike ostiraletan, zergatik ill berako ostiralak ill herri dira, eta ill berriko ostiralak ill berak.

—Oiek bai dirala *matematikak*, oiek. Asmatu besterik ez dago...

—¿Asmatu? Ala gertatzen da bada, jauna, eta arbolak botatzeko ere kontu bera

iduki bear da, bestela garai baten ordeztu bestian botatzen badira, zura gorritu egiten da.

—¿Aldamenian asi dan sagardua're garai okerrian egiña izango da?

—¿Bai? Polita omen da bada.

—¿Polita? ¿Sagardo gazi antzeko illun loitsuak? Atzo artsaldian baso bat eran nubenta ¿badakizu zenbat kendu ziraten?

—¿Zenbat?

—iZortzi zentimo! iNoiz ezagutu da orrelakorik! iZortzi zentimo baso kaxkar bat, ezpañetara eramane orduko ustuba! Ta gaitz erdi sagarduen itxura zerbait balu, bafian upeletik ateratzen dala ikusiko ez balitz, iñork eluke esango legetara're sagardua dala.

—Lormandiko sagardu oyek ez dira bizi-
ro zuzenak gertatu, ez.

—Normandiko eta gaurko Donostikuak alkarren antza badute orain egiten dituzten naspillakin. Lengo denboretan baso bat sagardo izan al leiken onena, arkitzen zana nun-nai ardiatzen, naiz ardiatzen pazi zar baten puska lizundua izan, bafian orain bost

zentimoko ederrenakin, ezta arren usairik ere. Len baso onrauak ziran, gaurko egunian txikiak, geienaz titaria añakoak, eta ori aski ez balitz bezela, kanillatik legua erdi batera jarri ta sagardua aña afar gertatzen da, ta abora orduko, klak, sentitu gabe.

—Pobriak saiatu egiten, saiatu.

—¿Saiatu? Bai: bañan Jainkoak agintzen duan bezela. Lapurretak gisa askotara egiten dira.

—Bai, jauna, egia da.

—¿Ta zer dio Mikolaxek?

—¿Mikolax? Len beziñ zintzo. Beti bere bi errialekua etxeari begira.

—¿Ta zuria?

—¿Guriak, jauna? Ezziñ iñora beiratu; ez dagon lekuan badaki...

—Ez dagola, bai; matematika zallak dira oiek, Batista.

—Bada atzo ere Mikolaxek zerri galanta saldu zuben.

—¿Diru ederrik artuko zuan beraz?

—¿Dirua? Ez nai bezela. Berak esaten

zubena: “Dirua artzen genduela uste, ta papera artu.” Papera eman zioten, jauna. Utsa garbiak balirake, bañan batzuek eskuetan artziak ere nazka ematen dute.

—Eta askotan pusketan dijoaz. ¡Nun dira lengo ontzurre xarrak! Bañan orain urria gorde egiten da bereala.

—Guretzat beñepiñ ondo gordia egon izandu da beti.

—Arpegi txarra jarriko diozute ta itzul egingo dute.

—Zerbait izango da.

—Gañera zubek lotu egiten dituzute, eta aieri gustatzen zaiote purrillan ibiltzia. Ortarako dira borobillak, korrika ibiltzeko.

—Guregatik ibilduko dira bada nai duten aña. Inguru abetan baño Bolibarko pasiuana jira geiago emango dituzte, bai, eta denda eder aietan obeto sartuko dira.

—¿Denda aietan? Bai. Santo Tomas egunean etorri zan andre Goierritarrak aña uzten badituzte guztiyak, diru-kaja beteko da.

—Gure diña izango zuben gaju arrek ere ta...

—Sartu zan, bada, ango jostallu-denda batian Donostiko feri aundien egun ortan, eta arriturik asi zan esaten: “¡Au gauza ederra! ¿Denda ontako etxeoandrea al da beorri?” “Andretxua, ¿zer nai du?” “¿Nik? Ikusi; ikusi onen gauza ederrak! ¡Zer gauz ederrak dauden emen! Orain ogei ta amasei urte izan nintzan ni Donostiñ. Arrezkerro idiferentzi egin du! ¡Ok gauza ederrak daudez emen! ¡Ok ederrak! Enaiz beñere izan, ez Planponan, ez Bilbon, ez Tolosan. Gu beti baserriñ laneen.” “Onezkero diru franko bildu du ta orain atsegiñian protxua atera biar du.” “¡Umeeek ordia, umeeek!” “¡Zorioneko umiak!” “Bai: azi gendituun ta ezkondu zien, eta ez da asko bañan guretzat baserrirako aski; iruna milla erreal eman diogu bakoitzari ta... guretzat pixka bat gelditu ere bai ta... ¡Ba! ¡Ok gauza ederrak! ¡Ok denda ederrak! ¡Bi begiak ez dira aski ikusteko!” “Andretxua, beorrek pasako luke egun guztiya onla beste ezer egin gabe.” “Bai; aixa pasa liteke beñepin onla. ¡Denbora errez jun!... ¡Diferentzia egin du Donostiak ni azkena izan nitzanetik!” “Bai, bai, bañan guk lana egin biar degu. Ez ditugu iru milla errialik beorri

beira egingo; beorrek ere txoriyai egaka beira egonda etzituben egingo ta..." "Ez, ez; arrazoia du. Ariyo, ariyo. Bañan zer denda ederrak!"

—iGajua! Zoraturik zegoan noski. Beok beñepin gure bizkar amaika far egiten dute.

—Baita amabi're. Zubek gure gaiñ bezela. Ta Mikolaxen amona ñnola dago?

—Pizkor dabill, jauna. Urtiak gañian ta anka bat bestiarekiñ juaz... badaki.

—Bai; adiñ aundia ta adiñentzat senda-belarrrik ez. Ara nua, bada.

—Ni're banua, jauna; jungo gera alkarrekin.

—Bai, Batista.

AMABIGARREN JOLASA

—iDenbora da alde ontara agertu ez da-
la! ¿Bizi da, bizi da?

—Bai nai beñepiñ, Batista. Atzo aditzen
nuben gisa ortako jolasa: “Ez da ill orain-
dik?” “Ezta nai're; beorri zarrago izan ta
ni lenago illtzia nai al du?” “Ez, ez, atse-
gin det.” “¿Zenbat dakazki berekin?” “Iru-
rogei ta emeretzi.” “Gizon gogorra dago
beorri oraindik.” “Bai sobra, ezurretan.”

—Etzuben arrazoia falta.

—Orra bada, egun abetan egin dituben
egualdiyekin badakizu...

—Bai; egualdi onak jun dira... bafian txarrak ere badatoz. Txar ta on guztitatik artu bear datozen bezela.

—Emendik aurrera naiko artua ta gaztaña duben baserritarra ez dago gaizki.

—Ez orixen; aurten artua ondo bilduko da, bafia gaztaña miñak jo du ta galtzen dijoa geiena. Arto urte ona izateko, obillua bear du izan tartean, au da, gauza koskor beltz bat, eta asko baldin badu, artua're izango da an gogotik. Gariyekin ere gertatzen da, gari urte txarra, baratzuriyak gorriik ez badu: izaten du burniyari ateratzen zaion gisan, ordoi bat ostuan Uzta-Aboztutan.

—Arbiyak ere badatoz...

—Bai, jauna. Arbiya're... jorra bat, arbi bat. Zenbat jorratu ainbeste izan: jorra bat arbi bat, bi jorra ezkeru bi arbi, iru ezkeru iru arbi, eta iru arbitaa ezkeru, naikua.

—Ta ¿zer egin zuten lugartzak?

—¿Lugartzak, jauna? Ezkutatu ziran ta pakia dakagu oraiñ udaberri arte. ¡Ez digute lanbide gaiztoa eman! Dakiyen bezela, eunka izaten dituzte umiak, eta abek azi-

tzian, ama txupa-txupa egifi ta itota uzten dute kabian. Lur puska batian kabian errenkaran egoten dira arrautz orixkak.

—¿Ta satorrik ezta?

—¿Satorrak? Bai, bai. Oyek ere badute beren abillidade ederra: lurra aidian jartzen dute eta landariak igartu. Oraiñ gloriyetan bizi diranak trikubak dira.

—¿Trikubak?

—Bai, jauna; sagar-pilletan txilipurdika ibiltzen dira, betetzen dute bizkarra sagarrez ta sartzen dira sasi-zuluetan.

—Zubek baño errezago egiten dute oiek bilkerak.

—Ala da. Beifi etorri bear du bat jatera: jaki primoria da, erbiya beziñ ederra.

—Ez da gaizki esana. Eta orlako mokadu goxuak jateko bidea izan ta beti aitzakia aitzakien gafiian dezute.

—¡Aitzakia... aitzakia!... Austen gera lanian ta, arto kaxkarrak dabiltzanian ere irauten degunian, ez gera illtzen samurrak. Txarrarekiñ irauten degunian, onaekiñ ¿zenbat iraungo ote genduke?

—Arrantzaliak baño obeto bizi zerate, bai.

—Arrantzaliak... bai... arrantzaliak zer ikusi geiago dakate. Guk ez degu gure bi-ziya ainbesteko zalantzan jartzen.

—¿Zer egiten dezute goizian goizetik?

—¿Goizetik, jauna? Egunsentiyekin jaiki-tzian, lenbizi jaten egaztiyari eman, bestela itoko luteke bat asten diran bezela saltoka bizkarrera ta lepora... Norbaiten kinka adi-tu orduko, zerriyak ere asten dira kurrin-kaz etxe guztiya aidian jartzen dutela. Gi-zentzen badaude ematen zaiote artalia, eta bestela, aza-ostua ta ur zikiñ pixka bat. Ze-rriya zikiña dala esaten da, baño alimali-rik garbiena da. Azpi guztiya loitsua bal-din badauka ere, txokora jun ta egingo di-tu bere biarrak. Gero ganaduari ematen za-yo errejilloia edo zaya. Ganadu eta beste guztienak egitian, neguba bada gosaldu be-riala pazi bat esne egosirik, taluak erre zi-gorrak zirt zart sutan egiten dutela ta sar-diñ batzuek badira're, erre aiek ere ta orrela...

—¡Arrayia! Etzerate gaizki jarriko lana gogoz egiteko.

—¿Gaizki? Ez, jauna, ez. Ontziyak ere tripa utsik gaizki ibilduko lirake.

—Orrengatik besterik ez bada ondarra eramaten dute.

—Guk legatzaren orde z sardiñ zarrak bezela.

—¿Ta trikubak?

—Maiz... albalitz... Udara bada, ganadu, zerri, egazti eta beste guztien kontuak egiñ ta juten gera atxurrera edo laiaa lanera; zortziyak, gosaltzeko ordu arte.

—¿Ta zergatik baserritarrak maietik le-gua erdi batera jartzen zerate?

—Alare bidea topatzen degu, bai; urruti-txotik ere pozik iritxi gauz ona bada. Usa-
iak gaitz ez eta janak on digula.

—Gu jaiki orduko beñepiñ ilanak egiten dituzute zubek!

—Batzuetan.

—¿Feriyetan arkitu izandu zera maiz?

—Noizik beñ izan izandu naiz, bai.

—¿Jende ernaia ta marrajo xamarra bil-tzen omen da an?

—Batzubek, batzubek. Gisa ortakoak ere izaten dira.

—¿Ta zer naspilla jenero egiten dituzte?

—¿Naspillak? Beorrek ez du bada artan saiatzeko asmorik izango...

—Jakiñ egiñ nai nuke.

—Bada, gertatzen da erostun batek edo besteak galdetzia: “¿Bei au saltzeko al dezu?” Ta “bai.” “¿Antzua edo ernai dezu?” “Bai, ernai det.” “Zenbat illabete du ernai?” Eroztuna urrutikoa baldin bada, bi illabetekua izan ta laukoa erantzuten diote batzubetan. “¿Zenbat eskatzen dezu bada ta esnetan nola dago?” Pitxar bi esne baditu, iru ditubela esan, ia ontzeditxo bat geiago ateratzen dan, batez ere urrutikoa bada: bertakoari eziñ gezur aundirik esan.

—Gauza okerrak dira oiek. ¿Ta konzienziya?

—Arrazoi du, jauna, bai. Jaungoikoaren beldurrik ez dan lekuban gauza zuzenik ez. Gero galdetzen dio: “¿Zenbat bada, zenbat?” “Onentzat, ezurak ere badauzka... ta aragitan jantzia dago... Bost bat ontzurre nai nituke nik onentzat.” “¡Gizona! ¿Bost

ontzurre? Lau ontzurrian ere onelako beiak billatzen dira...” “iLau ontzurrian ez beñepiñ: urtian ume bat egiten du ta... onlako beiak ez dira non-nai izaten. Beia bear badezu geienaz ere orlakoxia billatuko dezu beste bat ere.” “¿Nungua zera?” Ta gezurretan badabill, esaten dio, Ernanikua bada, Tolosakua, ta orla. “Bederatziurrenien probaako eman bear nazu beia.” “Ez dizut emango. Nik dirua eskuban dala emango dizut beia, len ere eskarmentatua nago ni bederatziurrenien emanta.” “Gizona, bafia piyadoria jarriko dizut, ez bazera piyatzen.” “Ez; ez det piyadore bearrik, nik dirua biet; bestela beia etxera eramango det.” “Ariyo; beia billatuko det, bai.” “Onlakorik ez beñepiñ.” “Diruarekin topatuko det, bai.” “Ta nik ere salduko det.” Erosten baidu, gero andik egun batzuetara gertatzen da erosleak esatia saltzalleari: “Beiak ez dituzuk esantako kondizioak.” “Bai, janaririk ez diozu emango ta...” “Bai, ta ostiko’re botatzen dit.” “Gure etxian etzuben beñepiñ orlako konturik... toki arrotzian dagolako tirako ditu... gure etxian emaztia ta umiak ibiltzen ziran beñepiñ esnia kentzen.”

—iA zer aparejubak!

—Bañan eskerrak onlakuak gutxi izaten dirala. Geienak zintzoak, zuzenak eta pres-tubak arkitzen dira.

—Ala bear ere, idukirik Euskal-erriko gi-zalegia.

—Ori, jauna, ori.

—Bigar arte, Batista.

—¿Badijoa beaz?

—Bai; illargia're Ayako Arri gafean za-baldurik azaltzen da ta...

—Bai; illargi ederra, jauna; galanta.

—Ia lenbailen triku ori maniatzeko mo-duak egiten dituzun.

—Nere kontu, jauna, nere kontu, eta es-kumuñak etxean.

AZKEN-ITZA

—¿Zer degu, Batista, zer degu?

—¿Zer degun? Ezer ez, jauna, ezer ez. Nigandik ez du beñepiñ metxik ere jakingo.

—¿Ez? ¿Zer gertatzen da bada?

—¿Zer gertatzen dan? Gauz aundia. Arri-turik utzi ninduben atzo Mixolaxek.

—¿Zerekin?

—¿Neronek ere bai al dakit? Sorgin-kontua diruri ta...

—¿Sorgiñak ere baditugu?

—Nik ala uste.

—Ustiak erdiya ustela du ordia, ta bada-kizu ez dala gauz oietan sinistu bear.

—Egiya da, jauna, bafña ikusten danarekin zer-nai esan liteke.

—Ikusi makusi ¿zer ikusi dezu bada?

—Mikolax...

—¿Mikolax ikusi ta gelditu zera orren arrituba?

—Ez, jauna. Mikolax etorri zan atzo illunabarrian onera, eta ekarri zituben paper moldizkidatu batzuek, non atzaltzen diran —¿zer uste du?— guk emen izandu ditugun jolas guztiak.

—¡Ja, ja, ja, ja, ja!

—¿Far egiten du? Orrek nauka bada bu-rua galdurik.

—Txorakeriak sartu zaizkitzu ta...

—Dan bezela, jauna.

—Ta ala izanta're...

—An daude itz guztiak jarriak gure abo-
tik atera diran bezelaxe, eta lotsagarri gel-
ditzeko...

—¿Lotsagarri? Bear-bada ¿gaizki esanik edo itz desegoki eta beste utsegiteren bat itzuli ote zaigu bada?

—Ez nere uztez; bañan alare... badaki... ba-ez-bada obe izango degu emendik aurrera sukak-txokuan sartu ta egon, an iñork gure jardunik aitu gabe.

—Nai dezun bezela. Sasoi obia dator emendik aurrera su-baztarrean gaztaiñ dan-boliñari eragiñaz egoteko; ta baserritarren kontuak jakin nai ditubenak, datorrela aien artera.

—Ori, jauna, ta baratzen...

—¿Baratzen? Gaurko eguneko emakumiak baratza berekin eramaten dute buru-tontorrian beren tipula, piper, baratzuri, udare arbol kabiyeekin, ama, ume ta guzti.

—¡Ala fere! ¡Zer panparroi ibilliko diran!

—Orra bada; ta ez dezazula kezkek iduki gure jolasen gañian.

—Bañan orrela azaldurik, jendiak beti ere...

—¿Jendiak? ¿Zer esango du? Nai gabian uts-aldiren bat joan bazaigu, erantzungo degu baserritarren azken-itzak.

—¿Baserritarrena, jauna?

—Bai; *trabenan* txurruptat eta besteren artian, maiz pipa itzali eta zenbat bider piztu, beste ainbeste bider zintzurra bustiyaz, mingaña ederki dantzerazirik esaten dutena...

—¿Zer esaten dute, bada?

—Bero xamar arkitzen diranian...

—¿Zer esaten dute?

—Diranak eta ez diranak aterarik...

—¿Bañan, zer esaten?...

—Azkenueko txurruta bota ta...

—¿Zer, zer?

—Illunpetan balantzaka etxera abiyatzerakuan...

—¿Zer esaten?...

—Atetik eztarriari gogotik eragiñaz...

—¿Bañan zer esaten dute?

—¿Zer? "Jaunak, gaizki esanak barkatu."

A Z K E N A

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—R. Artola
SAGARDOABEN GRAZIYA ta beste bertso asko. (Aitua).
- 2.—M. Soroa
GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.
- 3.—F. Apalategui, S. I.
EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
- 4.—Pepe Artola
USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso asko.
- 5.—P. M. Urruzuno
EUSKALERRITIK ZERUBA ta beste bertso asko.
- 6.—Toribio Alzaga
RAMUNTZO.
- 7.—Ramos Azkarate
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—Antero Apaolaza
PATXIKO TXERBEN
- 9.—Bitoriano Iraola
OROITZAK ta beste ipui asko.
- 10.—Bertsolariak
ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA
(1962).
- 11.—Piarres Larzabal
BORDAXURI.
- 12.—Bilintx
BERTSO TA LAN GUZIAK.
- 13.—Mariano Izeta
DIRUA GALGARRI.
- 14.—Piarres Larzabal
IBU ZIREN

- 15.—Bertsolariak
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
- 16.—Alfonso M.^a Zabala
GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
- 17.—Antonio M.^a Labayen
MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19.—Antonio Zavala, S. I.
TXIRRITA (Bizitza ta bat bateko bertsoak).
- 20.—Franzisko Goñi, S. I.
LURDESKO GERTAERAK.
- 21.—Piarres Larzabal
HERRIKO BOZAK edo **NOR ALKATE.**
- 22.—Bertsolariak
BERTSOLARIEN TXAPELKETA
(30-XII-1962).
- 23.—**AIZKOLARIAK** ta beste ipui asko.
- 24.—Fermin Imaz
BERTSO GUZIAK.
- 25.—A. P. Iturriaga
JOLASAK.
- 26.—Alfonso M.^a Zabala.—A. Larraitz.—Juan Mit
PERIYAREN ZALAPARTAK. — Melitona'ren bi senarrak. — Mendibe'tarren larriyak. — Utzi bearkol — Gizon bikañak.
- 27.—Bertsolariak
AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
- 28.—Bizenta A. Mogel
IPUI ONAK.
- 29.—Toribio Alzaga
BURRUNTZIYA. — Bernalño'ren larriyak. Txibiribiri. — San Tomas'eko ferriya.
- 30.—Graziano Anduaga
EGUNSENTIKO TXORIA ta beste bertso asko.
- 31.—M. Soroa
BARATZAN.



1027915

JB-905

JE